

# Berriketan

Debako herri aldizkaria - 190. alea - 2014ko azaroa



**Alaitz Eskudero, Kepa  
Junkerarekin elkarlanean**



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



## ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



**Hazirik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
telf.: 943 02 99 63  
e-mail: hazirik@gmail.com

**Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!**

*Zuhatzia*

943 191 383  
berriketan@zuhatzia.com

**www.aukera-inmobiliaria.com**  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

**AITTOLA**  
HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

**URDAITEGIA**  
**AITTOLA**  
HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

**LENTZERIA**

**Azoka**

**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

**kutxa**

kutxabank

**RAIKETAK S.L.**

**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**haizea**  
estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22, 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazaatik

**ISABEL**  
**FRUTADENDA**

Sokagin Kalea, 2 behea, 20820 DEBA  
943 029 186

**LAZKUNE**  
1975etik zuekin!

**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

*Calbeton*

**JATETXEA**

**Agustín**  
**Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**L.A.**

**LARRAMENDI  
ANAIK, S.L.**

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

**ZERBITZUAK:**

- \* Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14  
943 19 24 42  
sasoiiko@hotmail.com





**BERRIKETAN**

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba  
Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**

Zuhatza Euskara Elkarte

**Erredakzio taldea eta**

**kolaboratzaileak:**

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka,  
Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai,  
Lukax Dorronsoro, Izaro  
Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite  
Rodriguez, Gilen Garcia, Eider  
Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane  
Aizpurua, Haika Aizpurua,  
Nekane Goikoetxea, Mattin  
Urbietta, Mikel Aizpurua,  
Debako Gazte Asanblada,  
Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

**Koordinatzailea:**

Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:**

Erredakzio taldea

**Publizitatea:**

Joseba Escudero eta

Koldo Aperribai

Tlfnoa.: 943 19 13 83

**Logotipoaren diseinua:**

Iñaki Elosua

**Maketazioa:**

Leire Rubio

**Inprimategia:**

Euskalinpri

**Tirada:**

1.400 ale

**Lege gordailua:**

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

**OHARRA:**

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

**Argitaratzailea**



**LAGUNTZAILEAK**



Debako Udala



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURAN GARA  
Edukion, Hizkuntzen, Hizkuntzen  
Departamentua



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

# aurkibidea

05-08

**Kolaborazioak: Mattin Urbietta**  
("Ozpinaren alienazioa"),  
**Debako Gazte Asanblada**  
("Euskal pastela")...

09

**ALBISTEA**

**Itziarko Auzo Udalari buruzko**  
**iritzi-galdeketa egingo du**  
**Udalak azaroaren 30ean**



10

**ALBISTEA**

**"Ez da ezer egin Praileaitz I**  
**haitzuloko babes-gunea egoera**  
**berriari egokitzeko"**



11-14

**B. GAZTEA**

**Peria arrakastatsua Itziarren,**  
**Arrate Usatorreri elkarriketa,**  
**inkestak, denbora-pasak...**



15

**LABURRAK**

**Festa giro ederra eta alaia Zubi**  
**Txiki egunean, Sabin Osorok**  
**irabazi du Gure Balioak Saria,**  
**Zurrunbiloren surf txapelketa,**  
**Behobia-Donostia...**



18

**ZERBITZUAK**

## Euskal Herrian bizi gara; euskarak ez du inor baztertzen

Ina Aznalek, Ezker Anitzako ordezkariak, mozio bat aurkeztu zuen Udalean azkeneko Plenoan (urriaren 30ean) eztabaidatzeko. Bertan, behar larrienean dauden gizon-emakumeentzako lanpostuak sortzeko eskatzen zion Udalari.

Zuhatza euskara elkarteak ados dago, posible den neurrian, proposamen horrekin; ez, ordea, aurrerago esaten duenarekin: “el euskera no debe ser utilizado como elemento excluyente” eta, “solicito que en dichos puestos de trabajo se elimine como requisito el conocimiento del euskera”.

Ez ditzagun nahastu, mesedez, bi kontuak; elkartasuna eta hizkuntzaren auzia. Ez da zilegi.

Zuhatza euskara elkarteak ideologia politiko ezberdineko 250 bat bazkide biltzen ditu, urtero-urtero, euskaraz bizi ahal izateko aukerak zabaltzen joan gaitzen, diru ekarpena egiten dutenak. Haien eta, bazkide izan gabe ere, euskaraz bizi nahi duten debar guztien nahi eta eskubideen defentsan, honako adierazi nahi du:

1) **Euskarak ez du inor baztertzen.** Izatekotan, euskaraz ikasi ez duen horrek baztertzen du bere burua. Euskaraz jakitea kompetentzia kontu bat baita, edonoren (urrirasun konkreturen bat izan ezean) esku dagoena; izan andre edo gizon, izan gazte edo zahar, hango edo hemengo, sinesmen hauekin edo haiekin...

30 urte baino gehiago dira **Euskararen Legea** onartu zenetik (1982koa da Legea). Eta urtarrean beteko dira lau urte Debako Udalak Udallerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMAko) kide izatea erabaki zuela. **Berriketan** aldizkariak 2011ko urtarrean plazaratu zuen albistea: “Alderdi guztiek bat egin dute euskararen aldeko konpromisoan beste urrats bat emateko helburuarekin. UEMAn sartzeak dakar gure eguneroko bizitza soziala, herriko sektore guztietan, euskaraz garatu ahal izatea edo, bederen, norabide horretan bidea urratzea. Horrek ez du esan nahi euskaraz ez dakiena baztertzea geratuko denik, baina bai eskatzen du euskal hiztunen eskubideak bermatzeko neurriak hartzea bizitzako alor guztietan normaltasunez euskara erabiltzea ahalbidetuz”.

Udalak (eta beste zenbait erakunde eta eragilek) baliabiade eta diru mordoa inbertitzen dute urtero, herritarrek euskara ikasteko erraztasun guztiak izan ditzaten. Erraztasun guztiak. Askok erabiltzen duten aitzakia: “zaila” dela. Balio ez duen aitzakia da, jada. Euskaldunontzat gaztelania bezain zaila da gaztelaniadunentzat euskara. Hizkuntza batetik besterako koska berdina da ikasteko garaian eta, praktikatzeko ere, badira nahikoa eremu Deban, egin nahi duenarentzat. Hemen bi adibide eder youtube: Atenasko Mariak 10 hilabeteen ikasi du internet bidez (<https://www.youtube.com/watch?v=LCRsgxWhldI#t=76>); hemen Colombiako Jose Miguelen kasua (<https://www.youtube.com/watch?v=5TKPhTSkH88#t=57>). Baina ez dago urrutira joan beharrik, baditugu Deban bertan hainbat eta hainbat debar euskaldunduak. Saiatzeko asmorik ez dutenei, heldutasunez jokatzeko eskatu behar diegu: hartzen ditzuten erabakiekin kontsekuente izatea. Euskarak ez du inor diskriminatzen. Norberak egiten du.

2) **Kohesioaz** ere aritu da Ezker Anitzako ordezkaria. Eta bai, kohesioaz hitz egin nahi dugu guk ere. Benetan sinesen baitugu euskara kohesiorako eta integrazioarako elementu ezin hobea izan daitekeela, politikakeriaz erabiltzeari utzi eta, eskubide guztien eta guztion eskubideen defentsan, alderdi politikoak (zor zaigun begirunea erakutsiz), jendartearen ongi-zaterako elementu gisa defendatzen hasten badira, eta ez liskar bazter-nahastaile modura.

3) **Euskal Herrian bizi gara, “euskararen herrian”.** Bertako hizkuntza hitz egiten dugu. Eta bertako hizkuntzan bizi nahi dugu. Euskaraz. Gaztelaniaz bizi nahi dutenek, egin bezate; baina haiek gaztelaniaz bizitzeko baino eskubide gutxiago ote daukagu guk euskaraz egiteko? Horri erantzun beharko dio administrazio publikoan euskara ez eskatzeko proposatzen duenak. Bigarren mailakoak ote gara? Badugu eskubiderik?

Pako Aristik Andu Lertxundiren hitzak gogorarazi dizkigu berriki **Berria** egunkarian: “Euskara ez da inoiz inposatua izan, besteak beste, hizkuntza bat bere lurraldean hitz egitea ez delako inposizioa; hizkuntzaren garapena eta normalizazioa da”.

Guk ikasi dugu gaztelaniaz, bai. Eta askok ingelesez ere bai; eta frantsesez, eta alemanez... Gure lur honetan gure hizkuntzan bizi nahi dugu, ordea. Euskaraz. Gure hizkuntza, hemengo hizkuntza, delako. Eta eremu publikoan (gutxienez) bermatu behar zaigun eskubidea da; eta, beharrik, horri heldu beharra daukagu, eremu pribatuan erabat babesgabe baikaudede; ez baitugu euskaldunok, bestearen borondateaz haratago, euskaraz hitz egin ahal izateko inolako aitortzarik!!!

Deban, pediatarrengana joan eta hizkuntza “arraro” batean egiten dio medikuak umeari. Familia-medikuarenera joan eta, jada hain “arraro” ez den hizkuntzan egiten digute, gehienek, gazte eta helduoi. Matróna-ginekologoak berdin. Bake epaitegian berdin. Udaletxeko arkitektoak ere bai... Kasu horietan guztietan (eta beste hamaikatxotan) ari zaizkigu gure hizkuntzan bizi nahi dugunoi gaztelania inposatzen. Nola da hori? Imajinatu ote dezake, inork, gaztelaniaz ez dakien mediku bat Deban lanean? Gaztelaniaz ez dakien udal langile bat? Gaztelaniaz ez dakien abokatu bat? Tabernari bat? Igeltsero bat? Zer esango lukete, euskaraz ez dakiten gaztelaniadun horiek, ukrainieraz eta euskaraz, adibidez, dakien norbait jarriko balitz zerbitzu publiko batean? “Tira, ondo da; gaztelaniaz ez du oztopo izan behar...?”.

4) Ezker Anitzako ordezkariak egindako **proposamenak ez ditu euskaraz bizi nahi dugunon eskubideak aintzat hartzen.** Jakin nahiko genuke, bestalde, eskaera horren aurrean izandako lau abstentzioek zer esan nahi duten. Badugu euskararen herrian euskaraz bizitzeko eskubiderik? Ala ez?

Deba, 2014ko azaroa  
Zuhatza Euskara Elkarteak





## MATTIN URBIETA

### Ozpinaren alienazioa

Ez naiz enologoa, ez naiz ardoetan aditua. Baina esango nuke, esatera ausartzen naiz, gehienetan jakiten dudala aurrean dudan ardoa ozpindua dagoen ala ez. Usaintzea, ahora sartu eta pixka bat dastatzea, gehiagorik ez da behar. Gazteon artean arrakastatsuagoak dira garagardoa eta sagardoa, baina, afari eta bazkarietan batez ere, ardoak ere izaten du tokia. Duela ez asko, ordea, ozpinetik gehiago zuen botila bat suertatu zitzaigun mahaian zenbait laguni.

Sinetsi nahiko nuke, eta zinez hala uste dut, zerbitzariari pasa egin zitzaiola denboran igarotako botila, eta ez zuela asmo txarrez egin. Sinetsi nahiko nuke ez zela izan gazte ginezez gero, edozer edango genuela pentsatu zuelako. Hala ere, hausnarketarako bidea ireki zuen eztarria azido azetikoz bustitzeak. Ez litzateke izango lehen aldia, lehen aldia gazteoi, gazte izate soilagatik, garaiaz igarotako, pasatako zerbait saltzen saiatzen dena gizartea. Eta zerbait diodanean ez naiz soilik produktu materialez ari.

Pentsamendu, ideia, proiektu, uste, sinesmen, jokabide, balore, ohitura, bizi-eredu, etab. luze bat inposatzen eta irentsarazten zaizkigu gazteoi. Baina ez guri bakarrik. Areago, jada horren gazte ez zaretenek ere pairatu behar izan zenuten horrelakorik, nahiz eta orain batzuek borroeroaren tokia betetzen

duzen. Gogorak dira akaso hitzak. Baina prekarieratatera, adibide bat jartzearen, kondentatzen gaituzue.

Baina, urrunago joanik, gure izaera garatzeko oztopoz betea aurkitzen dugu bidea. Ozpin baso andana ikusi dut azken aldian eskurik esku herri honetan. Eta ez soilik gazteen artean, inondik ere, nahiz eta horrek kezkatu nauen gehien. Botilaren etiketari begiratzen diogu, barruan datorrena dastatu gabe. Kolpean dena barrura. Hustu bezain

berri, bete digute berriz ere. Bigarrena samurragoa da, guk eskatzen dugu.

Hirugarrenerako ondoan dugunari guk ateratzen diogu botilari lepotik helduz. Bitartean, hausnarketarako eta kritika objektiborako gaitasunak desagertzen doaz, baso-erdika.

Ozpinaren kiratsa darie gazteen jardura politiko eta soziala kriminalizatzen dutenei, gazteok atxilotzen eta espetxeratzen dituztenei; ozpinez blai daude zabor poltsak geranioen ondoan; ozpina ahoan dutela hitz egiten dute bozgorailuetatik etorkinen aurka; ozpinetako tintaz idatzirik daude Ukrainako estatu kolpe faxista justifikatzen duten egunkariak.

Ez gara enologoa, ez gara ardoetan adituak. Baina esatera ausartzen naiz, esango dut gehienetan nabaritzen dela aurrekoa ozpina denean. Usaintzea, pixka bat dastatzea, gehiagorik ez da behar.





## Bon cop de falç!

Garaikide guztiok ezinbesteko lekukoak gara Kataluniako suspertze prozesua ikusita. Aho bete hortz gelditzen gara hango prozesu independentistarekin, inbidia pitin batekin esan behar-ko, bai, baina sinpatia eta elkartasun osoz ere bai hemendik ikusita.

Hiru urte daramatzate kataluniarrek kaleetan eta plazetan beraien erabakitzeko eskubideak aldarrikatzen, batez ere Diada egunean, irailaren 11n. Eta jendea jai giro batean, alaitu, famili artean, auzokide eta herrikideekin batera, gazteak eta zaharrak kaleratzen dira aurpegia margotuta Kataluniako koloreekin edo estelada bat eskuetan; mugimendu guztiz demokratikoa eta baketsua osatuz.

Argi daukate zein den beraien helburua: 9N egunean, hots, azaroaren 9an, ozenki esan nahi diote munduari zer nahi duten herri gisa, Kontsulta Herriko baten bitartez. Erabakitze eskubidea 9Nan ekinez egina, gehienez hiru hilabete pasa eta gero Gobernuak hauteskunde plebiszitarioak deituko lituzke Katalunia osoan eta handik ateratako Parlamentuak, handik alderdi soberanisten gehiengo bat ateratzen bada, Alde Bateko Adierazpen Independentista bat deklaratu luke. Eta hori lortuko dutela dirudi. Eta gero gerokoa, hau da, Kataluniako Independentzia deklaratu eta gero, Espainiako Gobernuarekin, aurrez aurre, maila berdinean, negoziatu behar diren gaiak.

“Dena egiteko dago eta dena egin daiteke”, hala esaten dute katalanek. Argi daukate erraza ez dela izango, baina lehenengo pausoak egin nahi dituzte datozen asteetan.

Kataluniako herritarren mugimendua zabala eta sakona da, batez ere zeharka, non alderdi politikoek ez duten agintzen, ezta ere “linea” (edo ildo) zehazten/ematen. Alderdi soberanistek (ERC, CiU, CUP, ICV) laguntzen dute instituzioetan, bai, baina prozesua, mugimendua kaleetan jaio zen, herritarren artean. Assemblea Nacional Catalana-k (ANC), eta Omnium

Cultural-ak dira, bien artean, jendearen ahotsa eta herritarren nahia eramaten dutenak. Eta ondo, gainera. ANC, esate baterako, orain dela gutxi jaio zen. Batzorde bat osatu zen Independentzia aldarrikatzeko eta Kontsulta Popular bat antolatzeko Bartzelona herrialdeko herri txiki batean, Arenys de Munt-en. Gero, batzorde hau izan zen ANC-ren hastapena. Ofizialki ANC-k bi urte eta erdi daramatza osatu denetik. Gaur egun Katalunia osoan 600 dira ANC-ko batzordeak eta 45.000 pertsonak parte hartzen dute beraien ekitaldietan eta antolakuntzetan. Harrigarria, ezta? Ba... deigarria den beste gauza bat: ANC-n 8 pertsona bakarrik dituzte soldatapean, beste guzti-guztiak boluntarioak dira.

Kontuan hartzeko beste datu bat: joan den Diadan, Bartzelonako “V” erraldoi horretan, milioi bat eta zortziehun mila pertsona kaleratu ziren, hau da, Kataluniako biztanle kopuruaren laurdena! Zer esanik ez, iraultza sozial baten aurrean gaude, ANC-ri eta Omnium Cultural-i esker.

Zuk, lagun, artikulua apal hau 9N eguna pasa ostean irakurriko duzu eta jadanik jakingo duzu zer gertatu zen 9N-an, jendearen erantzuna. Hala ere, atrebentzia osoz, alde aurretik zera esango nuke: arrakasta monumentala izango dela katalandarren mobilizazioa. Kataluniako jendeak subjektu politiko aktiboa izan nahi du. Beraien eskuetan ezarri nahi dute etorkizuna. Eta hori lortzen ari dira.

*Bon cop de falç!* -igitai-kolpe ona!- dio Els Segadors-en leloak, katalandarren ereserkiak. Igitai-kolpe ona, bai, independenteak izateko. Eta honek zera pentsarazten dit: eta guk, euskaldunok, noizko? Guk noiz emango diegu aizkora kolpe on bat kateei askatzeko? Noiz emango ditugu elkarren artean behar diren urratsak? Noiz?

Joxe Luis Aldasoro



## Egin zaitez bazkide ZUHATZAN

Zuhatza Euskara Elkarteak 1997ko abenduan sortu zen, euskararen erabilera bultzatu eta Deba herri euskaldunago egiteko helburuarekin. Etorkizunari begira, lanean jarraitzeko gogoz dabil elkarteak eta horretarako indarrak batzen jarraitu nahi du, jakin badakielako euskararen eta euskal kulturaren normalizazioan urratsak eman nahi badira herritar guztien parte-hartzea ezinbestekoa izango dela.

Hori horrela izanik, bazkide kanpaina abiatu du elkarteak, “Zabaldu bidea euskarari” lelopean. Etxean, kalean, lanean, lagun artean, mendira joatean, ohean sartzean... Zabaldu diezaiozun bidea euskarari, noiznahi, nonahi, orain, hemen...

Egin zaitez bazkide Zuhatzan!!

Deban euskeraz bagera!



## San Roke: gure metafora, gure errealitatea



Debako elizan lau San Roke dauzkagu. Segur aski, bi ezagutzen dituzuenak dira eta beste bi ez dira hain ezagunak. Eta irudi horien artean zer diferentzia dauzka San Rokek?

Lehenengo San Roke (ez dakigu noizkoa) oso ezaguna da, bere irudia ermitara eramaten dugu, ezkerreko hanka dauka zaurituta eta txakurra beltza da.

Bigarren irudia eliza barruan, eskubiko pulpitan dago. Pulpitu horretako aldarean, San Rokek (egilea: Ignacio de Ibero, 1750) eskubiko hanka dauka zaurituta eta txakurra nahiko zaila da deskribatzeko, horregatik hobe da bertara joan eta ikustea.

Hirugarren irudia, erdiko erretaula handikoa, bigarren pisuan eta eskubiko aldean dago. San Roke horrek (egilea Bernabé Cordero, 1668) eskubiko hanka dauka zaurituta, baina ERNE! txakurraren ordez ume bat dauka, eta umeak miazkatzen dio zauria.

Laugarren San Roke (egileak: Martín de Armendia, 1575, eta Miguel de Aramburu, 1629) sabaian dago, koruko eskudel edo baranda parean, "medailoi edo klabe" batean, eta hor San Rokek eskubiko hanka dauka zaurituta. Irudi horrek aldamenean aingeru txiki bat eta txakurra dauzka.

1630eko izurritea zela-eta, San Rokeren gurtza (kultura)

asko zabaldu zen eta irudi asko egin ziren. Santuari buruzko kondairan aingeruak zauria sendatzen zion eta txakurak zauria miazkatu ordez, ogia ekartzen zion.

Elizako arkupeetan badago beste erromes bat, bere arropa, maskor, makila eta abarrekin, baina ez da San Roke, Santiago Apostolua baizik.

Eliza barruan lau San Roke desberdin baldin badauzkagu, nola ez dira egongo Deban iritzi desberdinak hainbat gairen inguruan: zaborrak, dunak (hondartzako belarrarekin), Auzo Udala, zezen korridak, Athletic ala Erreala...?

"Nolako egurra (zura), halako ezpala", eta San Roke hauetatik debar hauek!

Bai, San Roke lau bertsiotan dago, baina bat bakarra da eta, horretan bezala, debarron artean ere bertsio desberdinak gaude, baina bat bakarra gara. San Roke denok errespetatzen dugun bezala, gure artean ere elkar errespetatu beharra daukagu.

(Bibliografia: Santana, Alberto eta Cols (1999) *Debako Santa Maria. Itsas Herriko Eliza. Historia - Zaharberrikuntza. Gipuzkoako Foru Aldundia.* Inprimaketa: Litografia Valverde, S.A.L.)

**José Luis Albizu**

\*Eskerrak eman nahi dizkiot *Berriketan* aldizkariari testu hau kaleratzeagatik; beste komunikabide batean argitaratzeko idatzi nuen, baina han ez du aukerarik izan argia ikusteko.

### ZEIN DIRA BAZKIDEAK?

**ZUHATZA Euskara Elkartearekin bat egin eta ekarpen ekonomikoa egiten dutenak.**

### ZERTAN ARITZEN DA ZUHATZA?

**Berriketan herri aldizkaria, Mintzalaguna, aisialdia euskaraz (Kolore Anitz), literatur lehiaketak, Euskal Jaia, Bertsogintza, Olentzero eta Mari Domingi, Korrika...**

### BAZKIDE IZAN NAHI DUT:

**Izen-abizenak:**  
**Helbidea:**  
**e-maila:**  
**Jaiotze-data:**  
**Kontu zenbakia (20 digito):**  
**Herria:**  
**Telefonoa:**  
**Lanbidea:**

Urte guztiko bazkidetza 25 euroren truke! Hilabetero *Berriketan* aldizkaria etxean jaso eta abantailak izango dituzu euskara elkarteak antolatzen dituen egitasmoetan!

Bazkide izateko, datuen orria bete eta leku hauetakoren batean utzi:  
Zuhatza Euskara Elkarte, Arkatza liburu-denda, Udal Liburutegia, Masillo liburu-denda.  
Harremanetarako: [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) (943 19 13 83).





## Euskal pastela

Azokaren bat dagoenean soilik jaten dugu askok pastel gozo hau; horrexegatik, gaurkoan DGAK errezeta hemen uztea erabaki du. Horrelako mokadu goxoak behin edo behin probatu nahi izanez gero, animatu zaitezte asteroko asanbladetara agertzen, 22:00etan Gaztetxean. Ez zarete damutuko!

### Osagaiak:

Orea

- 300 g irin
- 200 g azukre
- 200 g gurin
- Arrautza 1 - 2 arrautza gorringo
- Limoi 1
- Koilaretxo bat (kaferako) legamia
- Gatza

Pastel-krema

- Litro 1/4 esne
- 50 g irin
- 50 g azukre
- 2 arrautza gorringo - 2 arrautza
- Bainila adar 1/2

### Prestaketa:

Irina kazola batera bota eta putzua egin erdian.

Bi arrautza gorringoak eta arrautza osoa erantsi (aurrez irabiatua). Gero legamia, azukrea, gatza, gurina (laurkietan) eta limoi baten azala bota.



Guztia oratu ore leun geratzen den arte. Bola bat egin eta atsedean hartzen utzi gutxienez bi orduz leku fresko batean, aldezturik irineztaturiko oihal baten gainean.

Pastel-kremarako, esnea berotu bainila adar erdiarekin.

Kazola batean azukrea, 2 arrautza gorringoak eta 2 arrautza osoak jarri. Zurezko espatula batez nahasi krema zuri gelditu arte. Irina bota barreiatu eta gatza eman.

Lortutako nahastura kazola batera bota eta oso su ezitan berotu, beti ere nahasiz, ore pixka bat loditu arte. Kazola sutatik kendu betiere nahasiz krema hoztu arte.

Gero molde sakon bat hartu. Barnealdea gurinaz igurtzi eta irineztatu. Orea atera eta bitan zatitu, 1/3 eta 2/3. Zati handiena arrabol batez luzatu eta moldean jarri, ertzeetan burlet bat egin.

Krema hoztua moldera bota.

Geratzen den ore zatia hartu. Arrabolez luzatu eta kremaren gainean jarri estalkia bailtzen. Bi ore zatien ertzak "elkartzen" saiatu, busti eta hatz muturrez estutu.

Sardexka batez postrearen gainazalean dekorazioak egin. Labean sartu (aurrez 180°-tan berotuta) eta 30-35 minutu egiten utzi.

*Alex Zarraua*

## Gaztelekuko atek zabalik dituzue!

Kaixo, guraso!!!

Zuen seme-alabari aisialdira begira zabaltzen zaion aukeraren berri eman nahi dizuegu.

Debako Gaztelekua 2003tik herrian dugun gazteentzako baliabidea da, Udaletxeko Gazte Departamentuak bideratu eta Zehar Heziketa eta Programak deritzon Irabazi Asmorik Gabeko Elkarteak kudeatzen duena. Nerabezaroan dauden 12-17 urte bitarteko gaztetxoei aisialdi eraikitzaile bat garatzen laguntzea eta beraien prozesu pertsonal eta sozialei elementu aberasgarriak gaineratzea du helburu.

Bertan lau hezitzailek egiten dugu lana: Markel, Itxaso, Uxue eta Hiart, Magisteritza, Pedagogia eta Psikologian tituluak. Gure lana irailtik abuztura arte egiten dugu eta gazteen aisialdi edo denbora librean egoten gara, hau da:

- Astartetik ostegunera: arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara.
- Ostiraletik igandera: arratsaldeko 17:00etatik 20:30era.

Osio 7an aurkitzen gara. 300m2 dituen lokalean...

- Ikasgela: institutuko lanak egiteko lekua.
- Dantza gela: areto handi eta balioanitz. Besteak beste, asteburuetan pelikulak ikusteko.
- Ekintzen espazioa: ping-pong, futbolinean, mini-futboleak... aritzeko.
- Egongela: mahai jolasak, eskulanak, sofak, billarra, labea, mikrouhin-labea...



Eskolako oporren garaia (gabonak, inauteriak, Aste Santua eta uztaila) irteerak egiteko aprobetxatu ohi dugu, elkarrekin autonomia maila eta ardura maila ezberdinetako proiektuak garatuz.

Urteak daramatzagu proiektu honetan eta gazte asko eta lagun talde asko ezagutu ditugu. Aldaketa handiko garaiak dira zuen seme-alaba eta familientzat. Haur bat izatetik heldu izaterako trantsizio honetan eragin nahi dugu guk ere. Aisialdiaren garrantzian sinesten dugu, berdinen arteko harreman eraikitze osasuntsuan.

Azkenik, esan, lana ilusio handiarekin egiten dugula eta nahi duzuenaroko Gaztelekuko atek zabalik dituzuela.

Agur bero bat.

*Debako Gaztelekuko hezitzaileak*



## Itziarko Auzo Udalari buruzko iritzi-bilketa egingo du Udalak azaroaren 30ean

Debako Udalbatzak hala erabakita, azaroaren 30ean (igandea) burutuko da Itziarko Auzo Udalari buruzko iritzi-bilketa.

Itziarko Auzo Udala eratzeke proiektua 2014ko ekainaren 17an onartu zuen Debako Udalbatzak. Orain, Gipuzkoako Udalbarutiak erregulatu dituen 2003ko Foru Arauari jarraiki, Auzo Udalaren lurralde eremuko biztanleek akordio horri buruz duten iritzia jaso behar du Debako Udalak. Eta horretarako antolatu du, hain justu, azaroaren 30erako deialdia. Iritzi-bilketa hori egiteko prozedura -data eta antolakuntzari dagozkion bestelako xehetasunak- urriaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu zuen Debako Udalbatzak. Hamahiru zinegotzietatik zortzik babestu zuten proposamena: Alternatibako bostek, Aralarrekoak, Itziar Herria Sortzen taldekoak eta EAko batek; aldiz, aurka bozkatu zuten EAJko hirurek, Ezker Anitzakoak eta EAko beste batek.

### Itziarko eskolan jasoko dira auzotarren iritziak

Urriaren 30a baino lehen erroldatuta dauden auzo udalaren lurralde eremuko -Arbiskoa, Arriola, Egia, Elorriaga, Endoia, Itxaspe, Lastur Behea, Lastur Goia, Mardari, Itziar auzoa eta Itziarko kaskoa- 18 urtetik gorako biztanleak daude deituta iritzia ematera. Debako Udalak jakinarazpen ofiziala bidali die herritar horiei eta azaroaren 14a arteko epea izan dute erreklamazioak egiteko.

Iritzi-bilketa Itziarko eskolan egingo da. Kutxa bat jarriko dute bertan azaroaren 30ean, 9:00etatik 20:00etara, eta auzotarrek honako galdera honi erantzun beharko diote: "Debako Udalbatzak Itziarko Auzo Udala eratzea onartu du. Ados zaude?". Iritzia emateko, bi txartel ezberdin erabili ahalko dira, bat "BAI" erantzunarekin eta bestea "EZ" erantzunarekin.



Txarteletan, gainera, Debako Udalbatzak onartutako egitasmoaren ezaugarri eta baldintzei buruzko informazioa agertuko da. Galdeketak berme guztiak izan ditzan, iritzi-bilketarako mahaiaren kideak udal langileak izango dira. Bestalde, begirale lanak burutzeko gonbitea honako hauek jasoko dute: alderdi politiko guztiek, herri plataformek (Gora Deba eta Denon Herria) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zein Gipuzkoako Batzar Nagusiek.

Azaroaren 30ean egingo den iritzi-bilketari begira, auzotarrak Auzo Udalaren proiektuaz informatzeko eta horren inguruan dituzten zalantzak argitzeko, auzo batzarrak egingo dira.

Iritzi-bilketa Auzo Udala abian jartzeko azken urrats bezala ulertuta, Debako Udalak dei egin die auzo udalaren eremuko herritarrei aipatutako auzo batzarretan eta bereziki azaroaren 30ean antolatuko den galdeketa parte har dezaten.

## Lanpostuak eta euskara hizpide, Ezker Anitzak aurkeztutako mozioan

Urriaren 30ean egindako osoko bilkuran, beste hainbat punturen artean, udal ordezkariak Ezker Anitzaren mozio bat eztabaidatu zuten -Ignacio Javier Aznal zinegotziak aurkeztuta-.

Mozioak zera zioen, hitzez hitz:

"Egungo krisi ekonomikoaren eraginez, eta Euskal Herrian bizi dugun giza egoera larriaren ondorioz, egoera txarrean aurkitzen diren giza taldeen (gazteak, emakumeak, atzeritarrak, minusbaliatu fisiko eta psikikoak, langabezia luzaerak daudenak...) egoeraren alde lan egitea da erakunde publikoen ardura. Horretarako, eta egoera hori ahal den neurrian leuntzeko, talde horiei zuzendutako lanpostuak sortzea eskatzen da; jasaten duten behin-behinekotasun egoera arintzeko.

Euskarak gizartearen egituratzeko eta kohesiorako tresna behar du izan, eta ez da erabili behar baztertuta eta babesgabe dauden talde hauen egoera hobetzeko eta duintzeko unean, behin-behinean bada ere, hartu beharreko neurriak zailtzeko edo eragozteko.

Guzti honengatik, Udal honi eskatzen diot:

- 1.- Udal talde guztien bilera deitzea, bertan Udal honek talde hauen gizarteratzeko lanpostuak finkatu ditzan.
- 2.- Gizarteratzeko postu hauetarako, euskara derrigorrezkotzat ez jotzea".

Mozioak ez zuen aurrera egin: Ezker Anitzarena izan zen aldeko bozka bakarra, eta kontra agertu ziren Alternatibako bost zinegotziak, Aralarrekoa, Itziar Herria Sortzen taldekoa eta EAko bat. Bestetik, EAJko hiru kideak eta EAko beste bat abstenitu egin ziren.

Lanpostuetan euskara derrigorrez ez jotzea eskatu izanak desadostasuna sortu zuen plenoan. Eztabaida piztu zen zinegotzien artean.

Pleno aretotik kanpo ere eman du, bai, gogoetarako tarterik Ezker Anitzaren mozioan aipatutako puntu horrek. Zuhatza Euskara Elkarteak *Berriketan* aldizkariaren ale hau baliatu nahi izan du bere iritzia plazaratzeko (ikus laugarren orrialdea).

## Arau subsidiarioen aldaketa zehatza Osio auzoan Udalak proiektuaren zirriborroa aurkeztu die herritarrei

Osioko auzoan Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala egiteko proiektuaren zirriborroa aurkeztu zuen Debako Udalak urriaren 24an. “Debarren eskaerari erantzunez, aldaketa honekin, Udalak Osio antolatzea nahi du eta, besteak beste, etxebizitzaren eraikitzea edo auzoaren urbanizazioa aurrera ateratzea ahalbidetu”, azaldu du Udalak.

Besteak beste, aurreproiektuak zera jasotzen du bere baitan: etxebizitzak, garajeak, aparkalekuak, Osio auzoa Agirretxe, Elizburu eta Amillagarekin lotzen duen bidea, auzo sarrerako errotonda, eta auzoa erreka ondoko paseoarekin eta goiko auzoa den Agirretxerekin lotuko dituen bi igogailu. Era berean, aisialdirako guneak -librean nahiz estalian- ere agertzen dira aurreproiektuan, eta Osioko erreka jatorrizko ibilgunea- ren mantenua ere bai.

Proiektua aurrera eramateko lehen urratsa izan zen urriaren 24an herritarrentzat egindako aurkezpena, proiektuaren nondik norakoak azaldu baitzituzten deialdira bertaratu-takoen aurrean. Azaroaren 5a bitarte, bestalde, udaleko pleno aretoan ere ikusgai egon da proiektua panel ezberdinen bitartez, eta bertan buzoi bat ere jarri zuten, herritarrek beren ekarpenak egiteko aukera izan zezaten.



Proiektuaren hasiera onarpena 2015eko urte hasieran egitea aurreikusten da. Udalaren proposamena ikusgai dago [www.deba.net](http://www.deba.net) atarian -zehazki, proiektuaren proposamena eta proiektuaren aurrekariak ezagutzeko aukera eskaintzen zaio bisitariari, baita Udalarri ekarpenak egiteko modua ere-.

### Proposamena:

\***Jarduketa eremua:** 30.000 metro karratu, gutxi gorabehera.

\***Etxebizitza kopurua:** 250 gutxi gorabehera.

-Babes ofizialekoak: 96 gutxi gorabehera.

-Tasatuak: 50 gutxi gorabehera.

-Libreak: 104 gutxi gorabehera.

\***Garaje eta aparkalekuak:**

-Publikoak: 126 gutxi gorabehera.

-Pribatuak: 300 gutxi gorabehera.

### \*Gizarte intereseko urbanizazioa:

-N634/Agirretxe/Elizburu/Amillagarekin lotura izango duen bidea.

-Osioetik irten eta Osiora sartzeko biribilgunea.

-Agirretxera, eskoletara eta kiroldegira iristeko igogailua.

-Errekako pasealekura iristeko lotura.

-Aisialdirako guneak, aire zabalean eta estalian.

-Osioko erreka jatorrizko ibilgunea- ren mantenduko duena.

## “Ez da ezer egin Praileaitz I haizuloko babes-gunea egoera berriari egokitzeko”

Aurtengo udan Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako indusketen emaitzen berri emateko agerraldia egin zuten azaroaren 4an Donostian. Bertan, Ikerne Badiola Kultura, Gazteria eta Kiroleko diputatuak hiru aurkikuntza nabarmendu zituen, eta horietako bat Praileaitzeko sarrera berriarena izan zen.

Diputatuaren esanetan, argi gelditu da haizuloa uste zena baino konplexuagoa dela, eta ikerkuntza bide berriak ireki behar direla.



Baina, berriz ere salatu zuen sarrera berria babesteko Jaurlaritzak ezer ez egin izana: “Uztailean izan genuen agerraldiaren ondoren, oraindik ez dugu Jaurlaritzaren erantzunik eta ez da ezer egin babes-gunea egoera berriari egokitzeko. Are gutxiago, noski, Foru Aldundiak eskatu zuena, alegia, zaintza 100 metrora zabal dezatela eta Kosta Legeak babesten duena, Kultura dekretu baten bidez ere babes dezatela”.

## Arte Eskolari buruzko hausnarketa-prozesua

Debako Udalak Debako Arte Eskolaren inguruko hausnarketa-prozesua jarri du abian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz.

Izan ere, prentsa ohar batean gogorarazi duenez, 1981ean sortu zen Eskola ospe handikoa izan da eta urte oporak bizi izan ditu, baina, azken urteetan erreferentzialtasuna galdu zuten joan da.

Bestalde, Debako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak adostu dute, Debako Arte Eskolaren eraikinetako bat, Artelekun zegoen Arte grafikoen egoitza bihurtzea.

Hori guztia dela eta, Arte Eskolaren inguruko hausnarketa orokorra egiteko une “ezin hobea” dela uste dute, bai Udalak, baita Aldundiak ere. Prozesuaren helburu orokorra

hauxe da: Arte Eskolaren ibilbidea aztertzea, egungo egoeraren diagnostikoa egitea eta Arte Eskolaren etorkizuneko izaera, ezaugarriak eta erabileraren oinarriak zehaztea.

Hausnarketa orokor horretarako Debako eta eskualdeko arte-eragileengana jo dute. Prozesuaren abiapuntu gisa galde-tegi bat beteko dute eta ondoren, bertatik ateratako informazioa kontuan hartuta, hausnarketa-talde bat jarriko da martxan. Talde horrek hiru bilera egingo ditu, lehen aipatutako helburua lortze aldera. Bilera-egunak hauexek izango dira: azaroak 27, abenduak 11 eta urtarrilak 15.

Hausnarketa-prozesua urrian hasi eta 2015eko urtarri-lean amaituko da eta prozesu horren emaitzaren berri herritar guztiek izango dute.





BERRIKETAN GAZTEA

## Peria arrakastatsua Itziarren Santu Guztien Egunean (azaroaren 1ean) ospatzen da urteko ganadu peria Itziarren

Goiz alaia eta giro ezin hobea izan ziren Itziarko industrialdean ganadu periaren bueltan. Goizalde hotza egin arren, poligonoa autoz bete zen, urtero bezala, eta haur eta heldu asko abiatu ziren animaliak eta baserriko produktuak ikustera, baita eguna ondo pasatzera ere.

Ekitaldi dezente prestatu ziren eguna ospatzeko. Azoka goizeko 9:00etan ireki zuten, eta arratsaldeko 14:00etan itxi. Eguerdiko 13:00etan banatu zituzten sariak.

Bien bitartean, ez ziren falta izan idi erakusketak, eta han bildu zirenek arreta handiz jarraitu zituzten animalia hauen pausoak. Behiak, idiak, zaldiak eta ardiak izan ziren, besteak beste, lekuko protagonista nagusiak eta jendeak ondo pasa zuten abere hauekin. Adibidez, ume asko ibili ziren pottokez inguratuta eta ibilaldi txikiak osatu zituzten haien gainean igota; bitartean, gurasoek zer edo zer jaten zuten inguruko txosnetan.

Baserriko produktuak salgai zeuden azokan bertan jarritako postuetan; ehun inguru jarri ziren guztira. Lagun asko abiatu ziren elikagai hauek erostera: gazta, esnea, fruituak eta barazkiak, itxura ezin hobearekin... arrakasta handia izan zuten, eta peria bukatu zenean ia ez zen produkturik gelditzen postuetan.

Gazteek eta helduek Itziar eta hemengo produktuak ezagutzea da hitzordu honen helburuetako bat. Urtero-urtero betetzen da xede hori, industrialdea jendez betetzen baita, eguraldi ona edo txarra eginda ere.



Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.  
2014ko azaroa



# ELKA RRIZ KETA



## ARRATE USATORRE:

“Niri gustatzen zaidana klaseak ematea da, baina gustura nago zuzendari lanetan”

Hilabete honetan, gure institutuko zuzendari berriari, Arrate Usatorreri, elkarrizketa egitea pentsatu dugu. Zenbait urtez institutuko Fisika eta Kimikako irakaslea eta zuzendaritza taldeko partaidea izan da Arrate eta, oraingoan, bere esperientzia berria kontatu eta partekatzeko, berarekin solasean ibili gara. Hona hemen gure galderak eta bere erantzunak:

**Aldaketa handia izan al da irakasle izatetik zuzendari izatera pasatzea?**

Aldaketa ez da oso handia izan, lehendik zuzendaritzan bainengoen. Aldaketa handiena irakasle izatetik zuzendaritza taldeko kide izatera pasatzea izan zen, duela hiru urte.

**Zer moduz zabilta karguan?**

Momentuz ondo, ikasleak zintzo dabiltzanean bai.

**Nola erabaki zenuen zuzendari izatea?**

Zuzendaritza aldatzeko garaian, kargua ez zuen inork nahi. Orduan, ikuskariak eskatu zien beraiek jarraitzea eta lehengo zuzendariak trukatzeari.

**Kargu honekin asko aldatu al da zure lana?**

Ez, orain ez. Irakasle izatetik zuzendaritza taldera pasatutakoan bai.

**Gustura al zaude?**

Ez zait gustatzen, baina gustura nago. Niri gustatzen zaidana klaseak ematea da.

**Erraza al da?**

Momentuz ez dakit oso ondo zer suposatuko didan, baina momentuz erraza da, ikastetxe lasaia delako.

**Nola moldatzen zara?**

Daukadan klaustroarekin eta zuzendaritza taldekoekin ondo nago. Ikasleekiko harreman ona daukat.

**Ikasle jatorrak al dituzu ikastetxean?**

Bai, dudarik gabe. Noizbehinka arazo gutxi batzuk ditugu, baina bestela bai.

**Iazko zuzendariak zer gomendio eman dizkizu?**

Gauzak lasai hartzeko. Zerbait ahazten bazait, egunero ondoan dudanez, berak gogorarazten dit.



# MUSIKA HIZPIDE

Hilabete honetan musika hartu duzu hizpide. Hona hemen ikasleei egin dizkiegun galderak:

- 1.- Gustuko al duzu musika?
- 2.- Zer nolako musika entzuten duzu?
- 3.- Ba al duzu talde edo abeslari gustukorik? Zein?
- 4.- Zenbat denboraz entzuten duzu musika egunean?
- 5.- Zer gailu edo tresnarekin entzuten duzu musika?
- 6.- Joan al zara kontzerturen batera? Zein kontzertutara?



## Markel Lizaso:

- 1.- Bai.
- 2.- Pop-a.
- 3.- Ez.
- 4.- 15 minutu inguru.
- 5.- Mugikorrarekin.
- 6.- Inoiz ez.



## Aitor Urain:

- 1.- Bai.
- 2.- Euskal kantak.
- 3.- Vendetta.
- 4.- Ordu bat.
- 5.- Mugikorrarekin.
- 6.- Ez.



## Aloña Salegi:

- 1.- Bai.
- 2.- Denetik pixka bat.
- 3.- Bai, Eñaut Elorrieta.
- 4.- Ordu bat eta erdi inguru.
- 5.- Mugikorrarekin.
- 6.- Bai, Eñaut Elorrietaren kontzertura.



## Joseba Sanchez:

- 1.- Bai.
- 2.- Teknoa.
- 3.- Ez.
- 4.- Ordu bat.
- 5.- Mugikorrarekin.
- 6.- Bai, Talco ikustera.



## Amaia Beristain:

- 1.- Bai.
- 2.- Denetik.
- 3.- Ez.
- 4.- Ordu bat.
- 5.- Mugikorrarekin edo ordenagai-luarekin.
- 6.- Zea Mays, Esne Beltza...



## Wendy Teran:

- 1.- Bai.
- 2.- Denetik.
- 3.- Ez.
- 4.- Ordu bat.
- 5.- Mugikorrarekin.
- 6.- Bai, Magnoren kontzertura.




## Josu Valenciano:

- 1.- Pixka bat.
- 2.- Euskal musika.
- 3.- Nonzervium.
- 4.- Ordu bat inguru.
- 5.- Mugikorrarekin.
- 6.- Ez.



## Regina Esmoris:

- 1.- Bai.
- 2.- Denetik.
- 3.- Five seconds of summer.
- 4.- Ordu bat gutxi gorabehera.
- 5.- Mugikorrarekin.
- 6.- Vendetta ikustera.




# DenBord-pasaak


## SUDOKUA

			3					5
		8	3	10				5
	3				4	4		
1	3		3				2	
	2			3				2
		2			3		1	3
		4	4					3
	4			4	3	3		
6					1			

## QUIRTU ZAZPI EZBERDINTASUNAK



## LABIRINTOA



## TXISTEA



Kartzelara iritsi berri den batek galdetzen dio beste bati:  
 -Eta zu, zergatik zaude hemen?  
 -Ateratzen uzten ez didatelako!

EGILEAK: Leire Amesti, Maialen Beristain eta Aiora Zubizaray

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala

PRENTSA TAILERRA 2014-2015

Maite Iglesias  
 Leire Amesti  
 Maialen Beristain  
 Sara Goikoetxea  
 Janire Salegi  
 Itsaso Iciar  
 Naia Agirregabiria  
 Paola Iñurrieta  
 Olatz Irusta  
 Aiora Zubizaray



Koordinatzailea: Joseba Agirreoa



## Festa giro ederra eta alaia Zubi Txiki egunean



Urtero bezala, aurten ere Zubi Txiki eguna ospatu dugu Luzaroko guraso elkarteak antolatuta, Gaztelekuko eta Kuadrillategiko gazteen laguntza paregabeaz.

Aurtengo honetan berrikuntzak izan ditugu: alde batetik data, ekainetik urrira pasatzea erabaki genuelako (ekainean ekintza ugari izaten baitugu) eta, bestalde, gonbidapena ikasleei ez ezik gurasoei ere luzatu izana, denon arteko festa egiteko asmotan.

Jende ugari bildu ginen urriaren 19an ospatutako jaialdian, zumardiko

kioskoan. Lehenik jolas ezberdinak egin genituen, hala nola abentura zirkuitua, mural erraldoia, beisbola, futbola, margo lanak eta abar. Ondoren, guraso eta ikasle arteko jokoak izan ziren, egunkariaren jolasa, bolen guda, itsuen jokoa, globo gerra... azkenean denon artean dantzan amaitzeko, ogitartekorik falta gabe. Festa giro ederra eta alaia izan zen beste behin ere.

Mila esker parte-hartzaile guztiei, baita antolaketan ibili diren gazteei ere! Hurrengo urtera arte!

*Zubi guraso elkarteak*

## Gure Balioak Saria, Sabin Osoro elgoibartarrantzat



Sabin Osororentzat izan da aurten Gure Balioak Saria, Debabarrena eskualdean ekintzailetasun sozialaren eta enpresaren alorrean bitzita osoan zehar egindako lanarengatik.

Mutrikuko udaletxeko pleno aretoan jaso zuen saria, azaroaren 5ean. Ekitaldian Javier Elzo soziologoak hitzaldia eskaini zuen "Ziurgabetasun handiko garaietarako balioak" izenburupean, eta iaz Gure Balioak Saria eskuratu zuen Carmelo Urdangarin debarrek eman zion errekonozimendua -Juan Luis Baroja Collet artistaren brontzezko eskultura-Sabin Osorori (Elgoibar, 1922).

Aurtengo sarituaren curriculum pertsonal-profesionala Debabarrenean eta bereziki Elgoibarren ezagutu diren gizarte eta enpresa arloko ekimenei lotua egon da beti. Besteak beste, jatorrizko Danobat enpresaren sortzaileetako bat izan zen, Eguzki eta Goiti enpresen sorkuntzan parte hartu zuen, eta Ongarri Kultur Elkartearen eta Elgoibarko Izarra kultur elkartearen sortzaileetako bat ere izan zen. La Elgoibarresa kontsumo kooperatiba eratu eta sustatu zuen -gero Eroskin integratu zena-, eta Elgoibarko Ikastolaren sorreran ere berebiziko garrantzia izan zuen Osorok.

## 373 parte-hartzaile Debabarreneko BTT Martxan

Mendi bizikleta zaleek aparteko egunaz gozatu ahal izan zuten urriaren 19an Elgoibarren. 373 lagun elkartu ziren Mintxeta Kirolgunean, Debabarreneko BTT Martxaren VI. edizioan parte hartzeko asmoarekin, eta tartean hainbat debar zeuden. Guztira sei emakumezko baino ez ziren aritu lehian (hiru eskualdekoak: bi elgoibartarrak eta bat Mallabikoa). Parte-hartzaileek bi ibilbide zituzten aukeran, bata 25 kilometrokoa eta bestea 45 kilometrokoa, Karakate mendia igaroz biak.

## Olatu eta erakustaldi paregabeak surf txapelketan

Pasa den azaroaren 8an (larunbata), Zurrumbilo Ur Kirol Elkarteak antolatutako surf txapelketa izan genuen ikusgai Debako hondartzan.

Tamaina ederreko olatuek eta partaideen erakustaldiek ikuskizun paregabeaz gozatzeko aukera eman zuten egun osoan zehar.



## Deba eta Itziarko 60 bat lagun Behobia-Donostian

Aurtengo Behobia-Donostia lasterketan 26.000tik gora atletak hartu dute parte, eta horien artean debar zein itziartarrak ere izan dira, beste behin ere. Guztira 58 lagunek amaitu zuten azaroaren 9an egindako proba (50. edizioa izan da). Kirolari gehienek Deba-Itziar Xtream taldeak antolatutako autobusean egin zuten joan-etorria eta denbora onak egitea lortu zuten. Nabarmentzeko bezalako denborak egin zituzten, besteak beste, Aritz Ruiz de la Torre (1:07:44), Ibon Arrizabalagak (1:20:54) eta Ander Gorostegik (1:22:41). Emakumezkoen artean, berriz, honako hauek: Olatz Arrizabalaga (1:34:32), Lur Altzibar (1:36:33) eta Ainhize Mancisidor (1:38:34). Sailkapen orokorra ikusteko, jo [www.behobia-sansebastian.com](http://www.behobia-sansebastian.com) atarira.

## Enplegu zentro bat ireki dute Deban

Deban enplegu zentro bat ireki da Berasaluze plazan kokatua dagoen Gizarte Zerbitzu departamentuan. Lanbideren zentro kolaboratzailea izango da, eta astearte eta ostegunetan eskainiko du zerbitzua, 8:00etatik 15:00etara.

Lanbidek eta Europako Gizarte Fondoak ordainduta, eta Zabalzen elkartearen eskutik, bertan eskainiko diren zerbitzuen artean hauek dira aipagarrienak: lana bilatzeko balia bideei buruzko auto-konsulta tresnak, lan-merkatuaren informazioa bilatzeko balia bi-

deak, enpleguari eta prestakuntzari buruzko informazioa eskuratzeko ekipamendu teknologikoa, bibliografia, argitalpenak, liburuak, prestakuntza eta abar, eta lan-munduratzeko ibilbidean lagun izango den orientatzaile baten laguntza.

Debako Udalak nabarmendu bezala, "egun bizi dugun krisi egoera honetan gure herrian ere langabezian dauden herritarrak ditugu, eta eskainiko den zerbitzua gehienbat herritar horiei zuzendutakoa izango da".

## Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren bueltan



Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, egun horren bueltan ekimen ezberdinak antolatu ditu, aurten ere, Debako Udaleko Berdintasun Sailak. Deialdietan parte hartzeko deia ere egin die herritarrei.

Ekimenak hilaren 8an abiatu ziren, emakumeei zuzendutako "Dantza Mugimendu Terapiari" oinarritutako tailerrarekin -Uxue Pascual dantza mugimendu terapeutak eskaini zuen-.

Azaroaren 25ean (asteartea) bertan, 19:00etan, emakumeenganako indarkeriaren aurkako elkarretaratzea egingo da Foruen plazan. Eta, hurrengo egunean, 26an, solasaldia izango da Agirre jauregiko Ispiluen Gelan, 18:15ean. "Emozioetatik geure barne-indarra berreskuratzen" izenburupean, emozioei eta emakumeen ahalduzaren inguruan arituko dira hitzorduan. Karmele Gurrutxaga psikologoa izango da dinamizatzailea.

Aurtengo ekimenei azaroaren 27an (osteguna) emango zaie amaiera. Beldur Barik Lehiaketari dagokion sari banaketa ekitaldia egingo da 19:00etan, Agirre jauregiko Ispiluen Gelan. Eta luntxa eskainiko da ondoren.

Aipatutako ekimen edo jardueraz gain, Debako Udalak adierazpen instituzionala adostu du, aurten ere, azaroaren 25ari begira. Urriaren 30eko osoko bilkuran aho batez onartu zen manifestua.

Adierazpen horretan, Udalak konpromiso hauek hartu ditu:

-Berdintasun esparruko politikekiko konpromisoa mantendu eta egonkortu, berdintasun politikak garatzeko behar diren baliabide ekonomiko eta humanoak indartzuz.

-Udalerrian eman litezkeen ekintza eta jarrera matxisten aurrean, prebentzio eta salaketarako eragile aktibo izan.

-Abian jarri, hedatu edo indartu, emakumeen parte-hartze ekitatiboa ahalbidetzen duten jai edo jardun sinbolikoak, bai eta gainerako espazio sozio-kulturalak ere.

-Emakumeen enpoderamendua bultzatzen duten gune komunak sortu edota indartu, behar adina baliabiderekina eta sare lana sustatuz, enpoderamendu eskolak edo emakumeen etxeen modukoak.

-Ahulenak diren guneetan biolentzia matxista eman ez dadin, instituzioen arteko elkarlana bultzatu, baliabide tekniko eta ekonomikoen bitartez: gazteak, adinekoak, etorkinak, nekazal guneak, aniztasun funtzionala dutenak, etab.

Azkenik, dei egin du azaroaren 25ari begira mugimendu feministak antolatu dituen ekimenekin bat egin eta bertan parte hartzera.



### Nolatan zabilta Kepa Junkerarekin elkarlanean?

Urte hasieran dei bat jaso nuen. Kepa Junkerak proiektu berri bat prestatu nahi omen zuen eta horretarako 7 neska behar omen zituzten: panderoa jotzen, kantatzen eta eszenario gainean egoten zekitenak. Ea nik horietako bat izan nahi nuen proposatzeko deitzen zidan. Ez nuen lehen momentutik erantzuna eman beharrik: arratsalde batez Keparekin elkartu ginen eta bere proiektuaren berri eman zigun. Buruari bueltak eman ondoren baiezkoa eman genion zazpiok, eta orain elkarlanean gabilta.

### Zertan datza proiektua?

Kepa Junkerak 35 urte beteko ditu datorren urtean trikiti munduan, eta hori aitzaki hartuta, bere orain arteko ibilalditxoak kontatu nahi du trikititza ikusteko bere ikuspegitik. Aprobetxatuz, berarentzat (eta baita guretzat ere, noski) eredu garri diren trikitilari eta pandero-joleak omenduko ditu; Laja, Landakanda eta Iturbide, beste askoren artean. Urte hauetan guztietan ikasitakoa guri erakutsi eta jendeari transmititzea izango da, azken finean, proiektuaren helburua. Betiere, Keparen ikuspegitik.

### Zazpi sorgin zarete guztira. Elkar ezagutzen zenuten lehendik?

Kepak proiektu hau detaile guztiekin prestatu du, bai musikari begira eta bai estetikari begira. Eta argi zuen, kontzertuaren estetikari begiratuta, emakumeak nahi zituela; baita profesionalki begiratuta ere, emakume ahotsak nahi zituen bere doinuetarako. Egia esan, zazpiok elkar ezagutzen genuen aurretik, txapelketetatik batez ere. Baina esan beharra dago orain dugun adiskidetasuna elkarrekin hainbeste ordu eta emozio bizitzearen fruitua izan dela.

### Proiektuan nola parte hartzen duzu?

Proiektuaren zati handi bat zuzeneko kontzertuak dira. Bertan, panderoaz gain beste perkusiozko instrumentu batzuk jotzen ditut: "pandero de peñaparda", txintxarri gabeko panderoa, latak, txalaparta; eta gutakoren batek bonboa ere bai. Horrez gain, abestu eta dantza ere egingo dut.



# Alaitz Eskudero: "Alaitasuna, trikitiarekiko maitasuna eta akelarreen xarma izango dira diskoaren oinarri"

Laster ikusiko du argia Kepa Junkera musikari bilbotarraren disko berriak. "Trikitiaren historia txiki bat" du izena proiektu berri honek, eta historiatxo hori kontatuko duten protagonistak Kepa Junkera & Sorginak dira. Horien artean dago, hain justu, Alaitz Eskudero debarra. Notiziaren berri izanda, *Berriketan*-eko lantaldeak zuzenean jo du herriko gazte musikariarengana. Berak azaldu dizkigu proiektuaren nondik norakoak.



## Noiz hasi zineten grabaketa lanekin? Eta zer moduzkoa izan da prozesua?

Grabazioa ez da txantxetako kontua, ez du zuzenekoekin zerikusirik. Grabazio lanetan hasierako detaile guztiak finkatuta egon behar dira. Abuztuaren hasieran hasi ginen grabaketa lanekin Elkar estudioan. Esan bezala, entsegu eta ordu asko sartu ditugu grabatzera iristeko. Guztiz esperientzia berria izan da. Ez du zerikusirik zuzenekoekin. Aitortu behar dut urduritasun handiagoa pasatu dudala grabatzerakoan; edozein akats txikirekin, errepikatu beharra dago, ongi atera arte. Baina merezi izan duela ez dut dudarik.

## Gustura azken emaitzarekin?

Bai, oso gustura. Keparen orain arteko proiektuekin ez du zerikusirik. Zerbait berria izan da, bai berarentzat, bai guretzat, eta izango da entzulearentzat ere.

## Diskoan zer aurkituko dugu?

17 piezaz osatuta dago diskoa. Piezen artean aniztasun handia dago, eta bakoitzak zerbait desberdina eskainiko dio diskoari. Kepa eta sorginoz gain, omen du nahi ditugun trikitalari eta panderojoleek ere hartu dute parte diskoa grabatzerakoan. Alaitasuna, trikitiarekiko maitasuna eta akelarreen xarma izango dira diskoaren oinarri.

## Noiz kaleratuko da?

Proiektuan, diskoarekin batera, liburuxka bat dator, argazki eta informazioz gainezka. Biak batera kaleratuko dira azaroaren hogeita lauan, eta Bilbon egin-

go dugu aurkezpena, Kepa bertakoa baita. Eta hurrengo egunetan, Euskal Herriko hiriburuetan eta Durangoko azokan izango gara aurkezpena eta elkarrizketak egiten.

## Dagoeneko kontzertuak eskaintzen zabilzate, ezta?

Bai, hala da. Lehen urratsak eman ditugu. Baina batez ere emanaldi pribatuetan aritu gara; edo antzoki ezagunetan. Kontzertu irekiak VIC, Iruña, Isaba eta agian ahaztu zaidan beste lekuren batean soilik eman ditugu. Hala ere, esan bezala, hauek aurrerapentxoak besterik ez dira izan. Proiektua ateratzearekin batera eskaerak iritsiko zaizkigu (hasi dira batzuk).

## Nolakoa da Kepa Junkera?

Puff... Galdera ederra! *jejeje!* Zaila da nolakoa den azaltzea, ezagutu egin behar. Argi dago profesional handia dela, eta bizitza profesionala egiten du, goizetik gauera. Hasiera batean gizon serioa ematen du, eta serio noiz egon behar den badaki. Bestela gizon dibertigarria da, nahikoa barre egiten dugu berarekin.


## Badira urte batzuk trikitiaren munduan murgilduta zabilzala: Ezten Giro taldean, trikitalari txapelketetan... Zelan ikusten duzu trikitiaren egoera gaur egun?

Bai, hala da. Txikitatik nuen garbi mundu hori ezagutu nahi nuela eta bertan murgildu nintzen. Hala ere, ez dago gaur egungo trikitiaren munduan murgildu beharrik lehengo trikiti munduarekin zerikusirik ez duela ikusteko.

Oraindik ere giro hori mantentzen da zenbait plazari esker, eta horien artean dugu Aisterrazu (Aia). Eta giroari eusteko emanaldiak ere antolatzen dira urtero, San Jose tango Trikitixa Jaialdia, Oñatiko trikitixa Jaialdia... Euskaldunon izaeraren parte bat da nire ustez, eta eutsi egin behar zaio. Horrek ez du esan nahi gaur egungo trikitixa mundua okerragoa denik, edo hilik dagoenik. Ezberdina da, baina aldi berean aberasgarria. Gainera, gero eta erromeri talde gehiago sortzen ari direla iruditzen zait azken urteetan, eta berriro ere festa giroan indarra hartzen ari dela.

## Etorkizunera begira, zer asmo?

Inoiz ez dago jakiterik nola irtengo den etorkizuna. Oraingoz, urte bukaeran izaten den Euskal Herriko Trikitalari Gazteen Txapelketarako prestatzen nabil. Trikitixa txapelketetatik asko ikasi dut, bai trikitixaren inguruan eta bai nire nerbioak kontrolatzen eta jende aurrean aritzen ere. Nire bizitzako zati garrantzitsu bat izan dira. Hala eta guztiz ere, jada lau urte dira lehenengo txapelketara aurkeztu nintzenetik, eta urte amaierarekin batera, txapelketei ere amaiera emango diet seguruenik. Bestetik, Ezten Giro taldean datorren urtean ere aurreko bi urteetan izan dugun arrakastarekin jarraitzea espero dut, oso gustura gabilza eta ez baitugu printzipioz taldea uzteko asmorik; ahal den bitartean aurrera segituko dugu, plazarik plaza bazterrak nahasten. Datorren urtean, Keparen proiektu berri honek ate asko irekiko dizkigun esperantza dugu, baina hori ez dago jakiterik.



## Agenda

**Azaroak 21, ostirala. Santa Zezilia bezpera**

-8:30. Kalez Kale txistulari taldearen eta soinu taldearen **diana**.  
-16:30. Banda Gaztearen **kalejira** eta ondoren **Skaleak**.

**Azaroak 22, larunbata. Santa Zezilia eguna**

-13:00. Txistularien **kontzertua**, udaletxe azpian.  
-13:00. Bandaren **kontzertua**, elizan.  
-13:30. **Aitzuri Abesbatza** kaleetan zehar.

**Azaroak 23, igandea**

-8:30. **Mendi irteera**: Aiako Harriak. Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta.

**Azaroak 25, asteartea**

-Emakumeenganako **Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna**. 19:00etan elkarretaratzea, Foruen plazan.

**Azaroak 26, asteazkena**

-18:15. "Emozioetatik **geure barne-indarra berreskuratzen**" solasaldia, Agirre jauregiko Ispiluen Gelan.

**Azaroak 27, osteguna**

-19:00. **Beldur Barik** lehiaketako sari banaketa, Agirre jauregian.

**Azaroak 28, ostirala**

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoek eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

**Abenduak 3, asteazkena**

-Euskararen **Nazioarteko Eguna**.

**Abenduak 7, igandea**

-17:00. **Ipuin kontaketa** saioa, Agirre jauregiko Ispiluen Gelan.

## Erakusketa

-**"Aitaren eskutik, egurraren orpotik"** izenburupean, Juanma Oiartzabal *Txalintxo*-ren lanak ikusgai izango dira Agirre jauregiko erakusketa aretoan.  
Abenduaren 5etik 14ra bitarte egongo da zabalik.

## Debako Gazte Asanbladaren 14. urtemuga

-Debako Gazte Asanbladak kontzertu akustikoa eskainiko ekimen ezberdinak antolatu ditu 14. urtemuga ospatzeko. Bestek beste, abenduaren 12an (ostirala) **Patxi Saizek** kontzertu akustikoa eskainiko du Gaztetxean. Abenduaren 20an, berriz, **bazkari herrikoi erraldoia** egingo da Aldats pilotalekuan.

## Bertsosaiioa

-Abenduaren 13an Aldats pilotalekuak bertso saioa hartuko du, 18:30ean. **Andoni Egaña, Maialen Lujanbio,** **Ametz Arzallus eta Sebastian Lizaso** arituko dira bertsoan. Amaia Agirrek jarriko dizkie gaiak.

## Lehiaketak

-**Tene Mujika Beka**. Lanak aurkezteko epea abenduaren 12an amaitzen da. Oinarriak: [www.deba.net](http://www.deba.net) atarian.  
-**VI. Animadeba Gortina Lehiaketa**. Edozein animazio teknika onartuko da, baina beharrezkoa da gortina guztiek Animadeba 2015eko logoa edukitzea (30 segundoko iraupena izan behar dute lanek). Saria 700 eurokoa izango da. Abenduaren 13an amaitzen da lanak aurkezteko epea. Informazio gehiagorako, jo Debako Udalera.

## ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **azaroak 24, 25, 26, 27.**  
**abenduak 12, 13, 14.**

Burgoa Zuazo: **azaroak 28, 29, 30.**  
**abenduak 8, 9, 10, 11.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

## DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: azaroak 22  
abenduak 13 eta 20

BURGOA ZUAZO: azaroak 29 eta abenduak 6

9:30 - 13:30

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komitadaren administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urloasi.net

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)

**Seven Clovers**  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

**Bar LOREA**

"Orotariko tartak etxean eginak"


Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



**MULTIÓPTICAS UZURI**

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

# ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



**MULTIÓPTICAS  
Uzuri**

## Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel. faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

## A D

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduene: 669 895 619

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482  
HONDARTZA, 2 - BEHEA  
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletelne.es

## atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
www.atarideba.com

## Lizaso

Autozerbitzua

Lersundi kalea, 31  
Tlfnoa: 943 19 27 39

## ITXAS GAIN

Taberna

ITXAS GAIN

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

## oskarbi

Pintxoak  
Ogitartekoak  
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9  
Tel. 943 029 486 - 812 641 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

## ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

## IGARZA

TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

## IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

## GENOVEVA

Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

## ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

English Academy

## NORTH STREET ENGLISH

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba

## Bordatxo

JATETXEA

Berezitasuna Parrilan:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Ariak: 20:00 / 23:00



**BIDERKATU EUSKARA**  
Mintzalagunen magiarekin

**INFORMAZIOA:**  
Zuhatza Euskara Elkarteak  
Ifar kalea, 12 behea  
943 19 13 83 | Udaletxeko Harrera

**IZENA EMATEKO:**  
Urriari Zuhatza Euskara Elkartearen  
Guztira 30000 pertsona hartuko ditu eta erantzun  
dundaratu egongo dira. Hurrengo urtean 30000 pertsona

**INFORMAZIOA:**  
Zuhatza Euskara Elkarteak  
Ifar kalea 12, behea  
943 19 13 83 (koordinatzailea@zuhatza.com)

**Euskaraz hitz egiteko saioak**  
**Mintzalagunen taldeak martxan ditugu.**  
**Animatu eta parte hartu zuk ere!**

**minzoologia.org**

Udaltzariak Zuhatza Euskara Elkarteak

## Badator Euskararen Eguna!!

Bizitzeko egun bat, gozatzeko egun bat,  
geu izateko egun bat, plazara irteteko egun bat ...  
**EUSKARAK 365 EGUN** dituela aldarrikatzeko egun bat!

